



URRETXU ETA ZUMARRAGAKO GABONETAKO XXXIV. IDAZLAN LEHIAKETA 2022

- 1.- Zumarragan edo Urretxun ikasten duten eskola-umeek har dezakete parte lehiaketa honetan.
- 2.- Bi talde bereiziko dira: A taldea: LHko 3. eta 4. mailakoak
B taldea: LHko 5. eta 6. mailakoak
- 3.- Lehiakide bakoitzak lan bakarra aurkez dezake.
- 4.- Lanak euskaraz izango dira, eta gaiak honako hauek:

A taldean: "Opariak jasotzea ez da Gabonetako gauzarik garrantzitsuena."
B taldean: "Bidaia hark zerbait irakatsi zidan."
- 5.- Neurri aldetik, arau hauek gorde beharko dira:
A taldean: orrialde bat gehienez
B taldean: bi orrialde gehienez
- 6.- Lehiaketan parte hartu ahal izateko, idazlana idatzita dagoen orrian barrenean datu hauek azaldu beharko dira: izen-abizenak, ikastetxea, maila, helbidea eta telefonoa.
- 7.- Idazlanak Zumarragako Zelai Arizti kultur etxean edo Urretxuko Aizpurunea kultur etxean aurkeztu beharko dira, azaroaren 25a bitartean, hau barne.
- 8.- Epaimahaiaren erabakia 2022ko abenduaren 16an, arratsaldeko 6etan, Zumarragako Zelai Arizti kultur etxean ezagutaraziko da, eta ekitaldi berean sari banaketa egingo da.
- 9.- Epaimahaia Zumarraga eta Urretxuko Kultura Batzordeek izendatuko dute.
- 10.- Sariak honela banatuko dira:
Bi taldeetan: 1. saria: diploma eta opariak
2. saria: diploma eta opariak
3. saria: diploma eta opariak
- 11.- Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da, eta horrela erabakiz gero, sariak eman gabe gera litezke.
- 12.- Saritutako lanak bi udalen webetan jarriko dira ikusgai.
- 13.- Sarituek bere lana berreskuratzea nahi izanez gero urtarrilaren 31 arte izango dute aukera.